

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

NEGOZIOAREN DEFINIZIOA

Enpresa hauek energia-iturriari buruzko konponbideak eskaintzen dizkiete partikularrei eta enpresei, eguzkia, haizea, ura eta landare- edo animalia-biomasa erabiliz. Instalazioak jartzea eta hauen mantentzea sartzen da.

MERKATU-DATUAK

Azken urteotan energia berriztagarriez sortutako elektrizitatearen kontsumoa igo egin da (2001ean %17,8 izan zen jatorri hidraulikoa zutenentzat eta %6 gainerakoentzat), eta hori gizarteak ingurumenarekiko kontzientzia handiagoa duelako eta jatorri berriztagarria duen elektrizitatearentzat Espainian laguntza-sistema dagoelako —ekoiztako elektrizitate berriztagarria prezio finkoan erosteko bermea, elektrizitatearen batez besteko merkatu-prezioaren gaintik—; hori Kiotoko Protokoloaren esparruan hartutako konpromisoak betetze aldera egiten da, hau da, 2010. urtean energia berriztagarrien kontsumoa %12koa gutxienez izan dadila. Gainera, ez dugu ahaztu behar energia berriztagarrien garapena garrantzitsua dela enplegua eta enpresa-ekimen berriak sortzeko. Alde batetik, Espainian gaur egun 12.000 lanpostu daude energia berriztagarrietan (45.000 induzitu), baina 50.000 lanpostu zuzen izan ditzake (150.000 induzitu), %12ko helburu hori lortzen bada. Bestalde, Energia Berriztagarrien Enpresei buruzko Datu Basean, IDAE-k kudeatua, 700 enpresa baino gehiago zeuden 2002ko ekainean, gehien-gehienak 25 langile baino gutxiagoko enpresa txikiak, horietatik 400 inguru proiektuen garapen integralaz arduratzen direnak eta 370 inguru ekipoen instalazioaz. EAEn, gainerako erkidegoetan bezalaxe, energia-eskaerak goranzko joera bizia du (%11 hazi zen 2001ean) eta energia berriztagarrien hornikuntza gehitu beharra nabarmena da, Kiotoko helburua betetzeko epea ahal bada laburtu egin behar delarik bost urtetan. Honela, energia-plan berriak (“3E-2005” deitua) 2.656 milioi euro inbertituko ditu EAEn energia sortzeko iturburuak dibertsifikatzeko, autohornidura gehitzeko eta ekoizpen-prozesuen ingurumen-eragina dezente murrizteko; horrek esan nahi du energia berriztagarrien gehitze garrantzitsua emango dela, %12 ingurukoa. Azken urteotan instalazio-kopurua, Energiaren Euskal Erakundearen (EVE/EEE) arabera, hazten ari da eta epe laburrera hazkunde hori areagotzea espero da:

ENPRESA-PLANA

Marketin-plana

□ *Produktua*

Energia berriztagarrien barruan, hainbat energia-soluzio sartzen da: eguzki-energia termikoa edo fotovoltaikoa, energia eolikoa (instalazio txikietatik parke eoliko handietara doana), energia hidraulikoa (EAEn minihidraulika da nagusi, instalazio hidroelektriko txikiak alegia), biomasaren energia (EAEn aukera gehien dutenak hiri-hondakin solidoak —HHS—, zura eraldatzeko industrietatik

datozen hondakinak, basogintza eta nekazaritzako hondakinak eta biokarburanteak dira)...

□ *Sustapena*

Herri-administrazioa eta energiaren arlo pribatua kontzientziatze-kanpainak egiten ari dira energia berriztagarrien erabilera bultzatzeko. Euskadin energia berriztagarrien garapena lagundu eta subentzionatzeko programak daude, eta enpresa-proiektu oro ekimen hauen barruan kokatu behar da. Energiaren Euskal Erakundearen web ofizialean (www.eve.es) Euskadin dagoen diru-laguntzen programa ikus daiteke. Eraikin publikoek ere bultzatzen dute energia berriztagarrien erabilera ura berotzeko eguzki-plaka termikoak jartzen baitituzte.

Plan Operatiboa

□ *Lokala*

Aholkularitza-enpresak erdi aldeko bulegoetan edo negozio-guneetan kokatzen dira, teknologia- eta enpresa-guneetan... Instalatzaileak, berriz, industrialdeetan, lantegi eta material-biltegiertzako lekuekin.

□ *Ekipamendua*

Ematen edo ekoizten den energia berriztagarriaren araberakoa izango da. Energia-sistemak biltegitratu eta instalatzeko beharrezko tresnak, makinak eta garraiobideak izan behar ditugu.

Giza baliabideen plana

Ematen ditugun energia-motetan espezializaturiko teknikari eta profesionalak behar ditugu gure langileen artean. Badira Biologia, Kimika, Ingurumen Zientzia, Goi Mailako Industri Ingeniaritzako titulazioak edo/eta masterrak edo graduatu ondorengo ikasketak, honelako negozioetarako profil egokiko profesionalak prestatzen dituztenak. Aipatzekoa da Usurbilgo Lanbide Heziketako Institutu berria, Euskadiko energia berriztagarriei buruzko prestakuntza, erabilera eta zabalkundean zentratua, eta heziketa honek “europar erreferentzia” izan nahi du energia garbiei buruzko teknologietan, eta bai LH-ko ikasleengana nahiz arlo honetako profesionalengana. Gainera, enpresa-inkubadore bat du LH-ko ikasketak bukatzen dituzten ikasleen “enpresa-kezkei” erantzuteko.

Inbertsio-plana

Inbertsioa: hasierako kopurua aldakorra da, sartu nahi den azpisektorearen arabera (aholkularitza, instalatzaile, saltzaile, banatzaile, diseinu-ingeniaritza...) eta eman nahi den zerbitzu/produktuaren arabera (adibidez, eguzki-energia eskuragarriagoa da eolikoa, hidraulikoa, etab. baino). Honela bada, aholkularitza-enpresentzat 36.000 €ko inbertsioa izan daiteke, eta 130.000 €koa instalazio-enpresentzat.

Negozia abian jarri aurretik inbertsio-plana egitea komeni da eta finantzaketa-iturriak zehaztea.

Garapen-en elkartutako agentzietan autoenplegurako orientabide- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen dira.

<http://www.garapen.net>

<http://www.lanbide.net>

Intereseko beste datu batzuk

Informazioa: Energia berriztagarriei buruz herritarren artean oraindik dagoen ezjakintasuna kontuan izanda, informazioa, prestakuntza eta kontzientziatzea negozioarekin konbinatzea komeni da: behar duenez eta egokiena denaz kontsumitzailea informatzea, laguntza eta subentzioei buruz eta dokumentazio eta izapide burokratikoiei buruz informatzea edo bezeroari zerbitzu hori ematea.

Prestakuntza: Arlo honetan arrakasta duten ekintzaileek gaia ongi aztertzea edo eskarmentua izatea aholkatzen dute, etengabeko prestakuntza-ikastaroak egitea, aurrerapen teknologikoak gero eta bizkorragoak baitira arlo honetan, eta espezializatzea.

Administrazio-izapideak

□ *Izapide orokorrak*

IAE: 5041

CNAE: 4531 (instalazio elektrikoak), 4030 (lurruna eta ur beroa ekoitzi eta banatzea).

□ *Izapide espezifikoak*

Instalatzaille-baimena lortzea eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailean Instalatzaille baimenduen Erregistroan izena ematea.

IDEIAK ETA ARRAKASTAREN GAKOAK

□ *Hazkunde mailakatuak*

Energia berriztagarrien eskaera hasi berria da oraindik. Egiten ditugun hazkunde-aurreikuspenek neurritsuak izan behar dute. Kapitalizazio handia izatea komeni da, eskaeran izaten diren goraldiei nahiz beheraldiei aurre egiteko.

□ *Bezeroei laguntzea*

Bezeroek zerbitzu eta produktu berriak kontratatzerakoan eskura izan ditzaketen laguntza eta subentzioei buruzko informazio guztia izatea komeni da. Horien izapideak ere geuk egitea komeni da.

□ *Idea patentatuak*

Hau eremu prestatua da ekintzaile-asmatzailearen figurarako. Kasu gehienetan ideia hori gauzatzeko inbertsioa oso handia izango da eta tamaina handiko enpresak bilatu beharko ditugu ustiatzeko. Baina hori bai, aurrez patentatu egingo dugu ideia.

HELBIDE INTERESGARRIAK

<http://www.eve.es>

<http://www.idea.es>

<http://www.aclima.net>

<http://www.ingurumena.net>

<http://www.energias-renovables.com>

<http://www.solarweb.net/empresas/euskadi.htm>

<http://www.mundoenergia.com/de/revistas.htm>